

IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEENTZAKO IKASTAROAK

**ELKARTEGINTZAREN INDARTZEA
2023**


Prozesu parte hartzaileak sustatzeko gakoak

Donostia, 2023ko otsailak 22 eta martxoak 1



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Herri Partaidetza
Participación Ciudadana



Bideratzailea:

emun
Euskara eta
berrikuntza soziala

AURKIBIDEA

01_ SARRERA: elkar ezagutu eta helburuak/espektatibak.

02_ Zer da parte-hartzea elkarteetan? - HAUSNARKETA

03_ Partaidetzazko prozesu motak

04_ Nola diseinatu parte-hartze proiektua - ARIKETA

05_ ITXIERA

Helburuak

Partaidetzazko prozesuak diseinatu eta aurrera eramateko trebakuntza eskaintzea

Donostiako elkarteetan parte-hartze kultura sustatzea

Donostiako elkartegintza indartzea

Estiloa

Praktikoa >> koherentzia pixkat, ezta?

Eginez ikasi (eta ikusi)

Proiektu errealetarako ariketekin

Bakarkako zein taldekako ikasketa

Elkar ezagutu

Izena,

Auzoa,

Elkartea
eta zure funtzioa elkartean,

eta...

"esaldi bakarrean, zergatik etorri zara
ikastarora?"

Espektati bak

**trebatzaileare
kiko**



edukiekiko



norberekiko



Edukiak

- Zer da parte-hartzea elkartean? Arrakasta eta porrota.
- Partaidetza prozesu motak (entzutea, kosorkuntza, kontsulta, erabakimena...).
- Parte-hartze egitasmoaren diseinua.
- Parte-hartze saio presentzialen (kosorkuntza bileren) diseinua. Bilera eta talde-lan eraginkorra errazteko jarrerak/tresnak/dinamikak.
- Parte-hartze ariketen ebaluazioa eta ebaluaziorako metodoak.

Post-it arauak

**POST-IT 1,
IDEIA 1**

**LETRA
ARGIZ,
ETA
LARRIZ**


**JENDE
ASKOREKIN,
MUGATU
POST-IT
KOPURUA**

POST-Itak BILTZERAKOAN...

MULTZOKATU,

**IRUDIEKIN EDO
IZENBURUEKIN
TEMATIZATU,**

ZENBATU...



**ATERA
ARGAZKIA!**



**EMAITZAK
TANGIBILIZA
TU!**

Zer da parte- hartzea elkartean?

Zer da “parte-hartzea” elkartean?

Zein momentutan ematen/eman dira
praktika parte-hartzaileak

edo/eta

zein gairen bueltan?"

Taldeak egitea

Zertarako?

Protagonismoak orekatzeko, saboteatzaileari edo hiztunari espazioa murrizteko, ixilari hitza emateko, ahula ahalduntzeko, zeharkako helburuak (berdintasuna, euskara...) elikatzeko, sormenari etekin handiagoa ateratzeko...




Nola?

- Ausaz edo ez, zenbaki/koloreak/goxokiak banatuz... Gaika, hizkuntzaka...
- Bozeramailetzan tendentziosoa izanez...

Parte-hartze prozesu motak


- Bilerak
(irekiak/mugatuak... orokorrak/fokalak...
errepikakorrak/bereziak...)
- Inkestak, galdetegiak
- Boto bidezkoak
- Iradokizunezkoak
- Ideia-lehiaketak, ideiak sortzekoak edo
jasotzekoak
- Online /offline
- Lehentasunak edo aukerak aukeratzekoak
- ...

Design-Thinking pixka bat...




DESIGN THINKING 101 NNGROUP.COM

04_NOLA DISEINATU PARTE-HARTZE PROIEKTUA




Dibergentzia eta konbergentzia momentuak



Eginez ikas dezagun...

ARIKETA

- Binaka edo hirunaka jarri
- 5': Aukeratu egitasmo erreala, aurki egitekoa, urtero egiten duzuen edo aurrez gaizki ateratako bat.
- 25': Proiektua definitu fitxa osatuz (txuletari kasu eginda)



- 10': Bukaeran denon artean egindakoa partekatu.

Nola goaz?

- Sortu zaizue datorren asterako galdera edo jakin-nahi berririk?
- Nola zoaz? Zer daramazu motxilan?

ESKERRIK ASKO!!



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Herri Partaidetza
Participación Ciudadana

emun
Euskara eta
berrikuntza soziala

IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEENTZAKO IKASTAROAK

**ELKARTEGINTZAREN INDARTZEA
2023**


Prozesu parte hartzaileak sustatzeko gakoak

Donostia, 2023ko otsailak 22 eta martxoak 1



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN


Herri Partaidetza
Participación Ciudadana



Bideratzailea:

emun
Euskara eta
berrikuntza soziala

Nola gatoz?





GAUR...

01_ Check-in: nola gatoz?

02_ Nondik gatoz?

03_ Gure parte-hartze proiektuak

04_ Partaidetza proiektuetako komunikazioa

05_ Taldeari etekina ateratzeko teknikak eta ariketak

06_ Gatazken kudeaketa

05_ ITXIERA

Nondik gatoz?

- Aurkeztu
- Gure ph proiektuak
- post-it
- zer da ph?
- taldekatzea, norbanakoa vs taldea
- Epaiketarik ez! Ideia guztiak dira baliagarri
- Erronboa: dibergentzia > konbergentzia

Gure parte- hartze proiektuak

Ahozko aurkezpenak

5': norberak berea aurkeztu (eta zalantzak/arriskuak planteatu)

Gainerakook entzute aktiboa eta...

- Bakoitzak galdera bat edo ideia bat proposatu.

Eta, badaezpada ere, beti galdetu zuen
buruari:
Prozesuan zehar zer atera daiteke **gaizki**,
gaiarekiko zuzenean edo zeharka?

Ai, Komuni kazioa!

Parte-hartze proiektuetan, gako.

Arazo askoren jatorri eta arrakastaren berme.

Komunikazioa, berez, badago. Deno/ak komunikatzen du/gu.

Komunikazioaren lidergoa nork har dezan nahi dugu?



Partaide tza eta Komuni kazioa!

Parte-hartze proiektuetan, 3 komunikazio fase nagusi:

Aurrez:

Gaia gizarteratzea, kontestualizazioa, zurrumurruei buelta ematea, parte-hartzaileen kaptazioa, eztabaida eremua markatzea (framing)...

Tartean:

“Tentsioa” mantentzea, saio presentzialak aberastea, feedback ez-presentziala jasotzea, doikuntzak egitea...

Ondoren:

Zikloa ixtea, emaitzak gizarteratzea, aitortza-eskertza, “etxeko lanekiko” lotura, prozesuaren ondorioak bistaratzea...

Partaide tza eta Komuni kazioa!

Gure buruari galderak egin:

- Zer lortu nahi dugu? Zein helburu dugu?
- Zer ideia transmititu nahi dugu? Zein izango da horrekin lotutako irudia?
- Norekin komunikatu nahi dugu? Zeintzuk dira xede talde bakoitzerako helburuak?
- Zein estrategia erabili behar dugu? Zein ekintza?
- Zeintzuk dira komunikazio-faseak? Kronograma?
- Zein baliabide dugu? Zer aurrekontu?
- Zein kanal dauzkagu eskura? Zein maiztasunekin erabili behar ditugu?
- Nola egin behar dugu komunikazio ekintzen eraginkortasunaren jarraipena? Adierazleak?

Bilerak prestatzen

«Alde guztiak biltzerakoan...



zer atera daiteke gaizki?» Zertan/nola sar dezakegu
guk hanka?

Nola atera etekina talde ezagutza eta indar guztiari?

Nor etorriko da?

Denbora nola kudeaktuko dugu?

Zerekin eta nola atera nahi dugu bileratik?

DISEINATU, PROGRAMATU!

Taldean erabiltze ko teknikak eta ariketak

Check in:

Motxila husteko ariketak, Nola gatoz, pilota eta brainstorming, gaira gerturatzeko galderak, erlaxatzeko eta kontzentratzeko ariketak, analogiak (animalia, koloreak), espektatiben matrizea, elkar-ezagutze ludikoak...

Tartean:

Norbanakoen eta taldekako hausnarketarako galdera gako inspiratzaileak, AMIA, taldeak eraiki/haustekoak, rol-banaketak, ideiak bistaratu/ordenatzeko teknikak (post-it taldekatzeak, buru-mapak, panelak...), aurkezpen-teknikak, elkarrizketa, taldean eraikitze ariketak...

Check out:

Aitortza-eskertza, baloraziorako galdera arinak, check-in ariketekiko ispilua...

Zenbait jarraibide

Gatazka: ezkutatu ala mahaigaineratu? Gatazka txarra da?

Bitartekaria: behar al dugu «2 aldeak maiteko dituen» bitartekaria? Bitartekaria ez da erabakitzailea baina...


Nola jokatu:

Deskribatu zehatz gatazka: jarri izena gatazkari, detektatu aldeak eta rolak, aldeen portaerak (objektiboak), aldeen mezuak, subjektuek sentitutako minak eta emozioak, ezagutu/entzun oinarrian dauden beharrak eta behar horien «asmo positiboa», desioak.

Kudeatu: emozioak, tentsioa, momentuak, portaerak; odol beroa hoztu. Desetiketatu, despertsonalizatu (deabrurik ez): PERTSONA SAKRATUA da, portaera ez.

Esploratu alternatibak: portaeretan, mezuetan, edukietan («gutxieneko puntu/espazio komun onargarria»)

Nola goaz?



Ebaluazioa



Ondo egindakoak

Hobetzekoak



berria

mantendu

ESKERRIK ASKO!!



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Herri Partaidetza
Participación Ciudadana

emun
Euskara eta
berrikuntza soziala